

# ETA MAITA HERRIA... (HAMARGARREN ATALA)

Gerardo MUNGIA

Hamargarren eta azken atal honetan, azken peredikuan, Patxik aldezen zituen balioen aldarrikapena ageri da. Eta aldarrikapen dira, halaber, Mungiaren azken aipamenak, pastoralaren, euskal antzerkiaren aldekoak, paperean ez ezik, taula gainean ere egon dadin.

**6. KANTOREA: IDOIAREN KANTORE TRISTEA**

Norat hoa orain ene ohaidea?  
Ez ote dakuskik hor hire haurrideak?  
Atx! Urtzen negarretan gure adiskideak?  
Zer geroa dukee alabak, semeak?  
Mundu dorpe honetan, ai! bakardadean.

Airea: “Agur sagar beltzaran” (Xabier Amuriza).

Jelki dantzariak, jelki haurrak (erdiko bortatik).

Haurrak  
180. Ai, ei Patxi gaixoa.  
Alda zenituen landak  
fabrikatzar batengatik  
non mihisea barranda.

181. Munduan uzten dituzu  
emaztea, biga ume.  
Maite zaituzten jendeak.  
Oroigarri zinez xume.

182. Zu jadanik joana.  
Ez da segur okerrena.  
Okerrena da etxean  
gera direnen auhenak.

183. Aralartik zohardian  
Iparrizarra distirant.  
Zazpi ahuntzak lerroan.  
Artizarra ez goiztirian.

Jalki oholtzarat arizale guziak (urdinak, gorriak, er-  
dikoak). Azken peredikua kantatzera doaz.

**5. AZKEN PEREDIKUA**

184. Mendialdeko haranak  
abailan, ziztu bizian

odolusten ari dira.  
Gaztetasun eskasian.

185. Herrixka tikiatarik  
hiri-auzo handietarat.  
Soro aberatsetarik  
asfalto elkorretarat.

186. Lantegian, fabriketan  
lan baldintzak txit krudelak.  
Klase arteko borrokan  
askapenaren brinbela.

187. Guduka dezagun elkar  
aldarrikatzeko harroki  
langileek esklabotik  
egin zutela fermuki.

188. Aberatsen mundua  
edota alferkeria.  
Haren ondoriotasuna  
jende pobre, miseria.

189. Gure Herriaren alde  
batu gaitezen guziak.  
“Hazila ez diezaguten jan  
hortik dabilzan txoriak”.

190. Euskal Herria, euskara,  
galdatau nahi dizuet  
guk defenda ditzagula,  
Amalur bazaigu laket.

191. Euskara, gure kultura  
erasotzen duteneri:



Patxik istripu hilgarria  
izan du lantegian.  
Haira ARIZGTEGI

Galdu duzue partida!  
Zarete inguraturik!

192. Lan pollita benetan  
egin dugu zuekilan  
Pastorala hori baita  
sorkuntza eta auzolan.

193. Partitzeko tenorea  
jadanik iritsi zaigu.  
Gure hutsez barkazioa,  
othoi, eskatzen dizuegu.

194. Oroit ikusle maitea  
kulturaren iturria  
funtsean EUSKARA dela.  
Euskaldunon aberria.

Azken kantorea arizale guziek batera  
kantatuko dute.

**AZKEN KANTOREA: ETA MAITA HERRIA**

–Behin batez bazen herri bat... Ahane-  
tan dut izena.  
Oroitzen naizen aldi orok dakarkit etsi-  
pena.  
Behiala ziren baratzeak, luhartzaren  
Edena...  
Galsoroak eta zelaiak, lugorriak gehie-  
nak.

–Etxeetako hormak, teilatuak, iduriz  
denak zutik.  
Keheilak, ateak, leihoak, goroldioz har-  
turik.  
Ez ke, ez ongarri usainik... Bada nehor  
bizirik?  
Zer ote zen hantxet agitu? Erreus nin-  
tzen engoitik.

–Eztiki ate bat bultzatu, hau bai usteka-  
bea!  
Tenore hartan nekusana, zinez taxuga-  
bea!  
Gakotik arropa txilintxau, zokoan gal-  
bahea...  
Dena nahikoa apaindua nahiz ta aba-  
ñak jabeak.

–Supazterreko tresneria, paltoak eta  
atorrak.  
Mahaina, kadirak, arasak, harraskan  
bustikora.



«Garat» pastoralaren mustraka  
2019an taularatu zuten Pagolan.  
Guillaume FAUVEAU | FOKU

Ganberetako paretetan potret zahar  
sorgorak.  
Oraino haidor orubean zaharkitu trak-  
torra.

–Ezkaratzeko kataderan oharra nuen  
ikusi.  
Zergatik herria zapuztu laburzki ihar-  
detsiz:  
“Nekazaritzaz, abeltzaintzaz ez baita  
gaur ahal bizi  
sorlekutik hiri handirat joatea dugu  
ebatzi.  
Petiri Santzen aginduak halakotz behar  
onetsi.  
Ez gara nehoiz arraxinen, arima zaigu  
hautsi.  
Guretako ez da aisit izan. Zaina digute  
erauzi”.

Airea: “Euskara eta euskaldunak” (J.B.  
Elizanburu).

**AZKEN AIPAMENAK**

Antzerkia ez da asmatu orrialde zurien  
artean abaroan izateko. Antzerkiak taula  
gainean behar du bere espazio naturala,  
berari dagokion lekua eszenatokiaren

**Antzerkia ez da asmatu orrialde zurien artean abaroan  
izateko. Taula gainean du bere espazio naturala. Egia, idazki  
hau nehoena ez den lurtean geratu da. Oholtza gainean  
izateko pentsatua eta haatik zure esku artean gelditu**

**Haur denboretan eta nerabezaroan, eskoletan komediak eta  
antzezlanak jokatzen ditugu, baina antza, adin zehatz baterat  
helduz gero, asmo horiek ezabatzen dira. Eta teatroa  
baztertuen mundurat igarotzen da, marjinauenerat**

bizitasuna baita. Egia, idazki hau neho-  
rena ez den lurtean geratu da. Oholtza  
gainean izateko pentsatua eta haatik zu-  
re esku artean gelditu (agian sobera  
hotz?). Nahi eta ezin.

Lan honetan, aitzin solasean eman di-  
tudan aipamen orientagarriak gehi bar-  
neko argazkiak eta ilustrazioak, egiazko  
pastoral baten irudikatzeko lagungarri  
izan direlakoan nago. Dena den, gaur  
egun Interneten bidez pastoralen argaz-  
ki edota filmazio piloa kausituko duzu.

Baina, zenbat antzerki obra idazten di-  
ra eta zenbat igaiten oholtzara? Erantzua  
guziek ongixko badakigula uste dut:  
ondikoz guti, sobera guti.

Haur denboretan eta nerabezaroan, es-  
koletan komediak eta antzezlanak joka-  
tzen ditugu, baina antza, adin zehatz ba-  
terat helduz gero, asmo horiek ezabatzen  
dira. Eta teatroa baztertuen mundurat  
igarotzen da, marjinauenerat. Kirolak,  
futbolak, agintzen bide du... Sobera “tele”.

Bururat datozkit dantza talde franko  
eta zinemagile xumeak; haiek ere uste  
dut ibilbide neketsuak, idorrek, kurri be-  
har dituztela, anitzetan ikusleriaren ai-  
tzineraino iristeko ezinean geratuz. No-  
la ez aipa instituzioek egitasmo  
hauekilako maiz duten soraioetasuna?  
Halere, zergatik ez idatzi, zergatik ez  
proposatu gure proiektuak, jokatzerat  
iristen ez badira ere?

Alta, Xiberoako pastorala osasuntsu  
dagoela ematen du. Urtero eskualde ho-  
rretako herri batek pastorala prestatzen,  
antolatzen eta jokatzen baitu, kadira gu-  
ziak jendez leporaino betetzen. Zazpi mi-  
la jende bi emanalditan sartzen dira, eta  
hirugarrena ematen delarik mila edo bi  
mila gehiago erakartzen ditu. Ikusgarri  
honek, zer segetu dauka? Zer indar?

Herri-antzerkiak, bai Xiberoan, Bargo-  
tan, Etxalarren, Balmasedan, Hiriburun,  
Obanosen, non-nahi prestatzen denean,  
jendearen engaiamendu zintzoa galda-  
tzen du. Eta arauz, hor dugu ikuskizun  
hauen arrakastaren segetua. Auzola-  
nak beti elgartzan, batzen gaituelakoz...  
eta herri-antzerkia auzolan kulturala  
baizik ez da.

Parte-hartzaileak bizituko duen  
abentura ez du santa sekulan ahanzi-  
ko, zaude segur.